


# NOLA EZABATU DITZAKET BILATZAILEEN EMAITZETAN AGERTZEN DIREN DATU PERTSONALAK?

Interneten zure datu pertsonalak aurkitzen badituzu, haiek kentzeko eska dezakezu.



## Kontaktatu zuzenean web orrialdearen titularrarekin

Gure datuetara sartu, haiek ezabatu edo zuzendu nahi baditugu edota helburu jakin baterako tratatzerik nahi ez badugugure eskubideak erabili beharko ditugu legezko abisuan agertzen den web orrialdearen titularraren aurrean.



## Kontaktatu zuzenean bilatzailearekin

Gure informazio pertsonala interneteko bilatzaileetan ezabatu nahi badugu, **ahaztua izateko eskubidea** dugu. Horietako askok eskaera egiteko aukera ematen dute inprimaki bat beteta.

## Gure datu pertsonalak babestea garrantzitsua da?

### Bai, gure pribatutasuna babesteko!


Gure informazio pertsonala interneten argitaratzen den unean, horren gaineko kontrola galtzen dugu, eta ziberdelitugileek erabil dezakete beren iruzurrak burutzeko. Hala ere, **gure pribatutasuna defendatzeko lehen muga** sor dezakegu:



- Nabigatzaileko pribatutasun-aukerak behar bezala konfiguratu.
- Pribatutasunaren konfigurazioa noizean behin erreparatu.
- Ikasi nola garbitu nabigazio-datuak eta cookieak.

Zure pribatutasun-eskubideak erabiltzeko moduari buruzko informazio gehigarria nahi duzu?

<https://www.avpd.euskadi.eus>



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**